

2- Merkatu segmentazioa

Gure produktua oso merkatu murriztuan salduko dugu, gehienbat jende gaixoari zuzenduta dago eta beste aukera bat izan daiteke Osakidetza edo horrelako enpresei edo elkarteei saltzea. Gure helburua da mundu osoan zehar saltzea gure produktua eta ahalik eta merkatu gehienetan eskua sartzea. Eta horrela gure produktua esportatzea lortuko dugu eta diru sarrera handiagoak lortzea

Gure produktua, agian, ez dago jende guztiaren eskura. Baina dakigunez, gure ohea lagungarria izango lirateke gaixo kopuru handi batentzat, haien bizi modua hobetzeko. Pertsona orok gure produktua eskuratu ahal izateko, Eusko Jaurlaritza/Osakidetza subentzioak emango ditu errenten arabera eta pertsonen beharren arabera. Eta horrela gure ohea ia gaixo guztien eskura jarriko dugu.

Produktua edozein adineko pertsonentzat zuzenduta dago, orokorrean gaixotasunak dituzten pertsoneri zuzendu dugu baina ere aukera ematen dugu pertsona batentzako ohe pertsona diseinatzea beraren beharren arabera.